

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko alkate-udalburuak 2018ko azaroaren 28an emandako 2598 Dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez diru-laguntza izenduna eman zaio Laudio Ikastolari Haur Hezkuntzako eraikinak eraberritzeko.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, argitara eman da deialdiaren laburpena. Horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuraduna.

Laudio Ikastola

Bigarrena. Xedea.

Diru-laguntza izenduna ematea Laudio Ikastolari, Haur Hezkuntzako eraikinak eraberritzeko 2017-2018 urtean, bi fasetan: 1. fasea: barne-patioak eta korridoreak ireki eta elkartzea. 2. fasea: ikasgelak irekitzea.

Hirugarrena.- Hitzarmen arautzailea.

Laudio Udaleko alkate-udalburuaren 2598 Dekretua, 2018ko azaroaren 28koa, zeinaren bidez onetsi zen Laudio Udalaren eta Laudio Irakaskuntza Kooperatibaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Diru-laguntza honen zuzkidura 70.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena.- Diru-laguntzaren justifikatzeko epea.

2018ko abenduaren 31 arte.

Laudio, 2019ko urtarrilak 24.

Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.